



## **Eskola Txikien egoeraren aurrean**

Sei hilabete pasatu dira gobernu berria eratu zenetik eta ez da hobetu Eskola Txikien egoera. Ez da lortu batzarrrik aurreko legegintzaldietan izandako eztabaidak berriro hartzeko eta trabak jartzen ari dira jadanik hartuta zeuden erabakiak martxan jartzeko: eraikin berriak, lehen hezkuntzako lehen zikloa mantentzea, desplazatutako gelen aitorpena, eta abar.

Egoera honen aurrean, Gobernu, Foru Aldundi, partidu politiko, sindikatu, hezkuntza eragile eta abarrei dokumentu bat aurkeztea erabaki dugu EHIGEk eta Eskola Txikien Koordinakundeak elkarrizketa bat lortu eta gure ikastetxeentzako eskatzen ari garen estatusa lortzeko. Horretaz gain, gure jarreraren berri eman diegu komunikabideei eta prentsaurre bat egin dugu.

Guzti hau dela eta honekin batera doan manifestua sinatzea eskatzen dizuegu .

Federazio, Eskola Txikien Koordinadora edo EHIGE Gurasoen elkartera bidali dezakezue sinatutako manifestua:

Ehige Gurasoen Elkartea  
Ronda 27-1ezk. 48005 Bilbao  
Posta elektronikoa: [ehige@ehige.org](mailto:ehige@ehige.org)  
Fax 944166648

Mila esker



## **Herri/eskola izena .....zera adierazi nahi dugu:**

Eskola txiki bat herri baten arima da. Ez da herri txiki bat bizirik ulertzen eskolarik gabe. Haurrik ez dagoen herria itzalita dago, baina herri txikietan haurrak izateko, beharrezkoa da gizarte antolatu batean dagoen zerbitzurik funtsezkoenetako bat edukitzea: heziketa gunea, hots, Eskola Txikia. Herri txikien hustutze fenomenoari aurre egiteko ezinbestekoa da hiri eta herri nagusienetatik aparte dauden bizigune txikietako zerbitzu eta azpiegiturak mantentzea edo, behar bada, osatzea. Eta, nola ez, hauen artean garrantzi berezia dute eskolek, izan ere, hain beharrezkoa den belaunaldi-erreleboa emango bada, ezinbestekoa da hauen seme-alabek beren lehen heziketa mailak etxetik gertu eta duintasun osoz egin ahal izatea.

Eskola txikietan, bestetan bezalako kalitatea lortzen da, gainera, urte askotako esperientziak baieztatzen digunez, hamar/hamabi urterekin, hurrengo eskolara iristean, haur hauek ez dute inolako arazorik izaten lagunekin elkarbizitza oparoa gauzatzeko edo beste esparruetan bizi eta hezitako haurren mailako emaitzak lortzeko.

Eskola Txikiak euskararekin duten lotura ere azpimarratu behar da. Ahotara ekarri nahi dugu *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak dokumentuan adierazten duena, 3. atalean “Lehentasunezko ildoak XXI. Mende hasierako hizkuntza politikarentzat”*:... *Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasmune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea...Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz*

Duela urte batzuk, herri desberdinetako ikasleekin eskualdeka “kontzentrazio eskolak” egin ziren. Kontzentrazio politika hau erabat kaltegarria izan zen herri txikientzat. Egoera honen aurrean topagune bat antolatu zen eskola txiki guztiek zituzten behar komunei erantzuteko asmoz; denek denei sostengu eta babesa eman ahal izateko koordinakundeak sortu ziren eta gaur egun Eskola Txikien Koordinakundeak funtzionatzeaz gain, hainbat herritan Eskola izatea eta bultzatzea lortu da

### **Hau dela eta bat egiten dugu eskola hauek egiten duten eskariarekin**

- Egun dauden Eskola Txikien mantentzea eta handitzea. Eskola Mapan euren berezitasunak adierazi eta kontuan hartu.
- Herri txikietan guztietan, auzoetan, 0-3 eskaintza zabaldu
- Irakasleen egonkortasunari irtenbideak bilatu eta martxan jarri.
- Eskola txikien arteko harremanak sendotu, elkarren arteko proiektuak garatuz.
- Eskola txikien abantailak gizarteratu.
- Eskola zabaldu nahi duten herriei laguntza eskaini eta gauzak erraztu.

2010eko urtarrilaren 14an (zigiluak eta sinadurak)

**Eskola Kontseiluaren izenean**

**Guraso Elkartearen izenean**